

Lezoko zine agenda

URTARRILA

ENERO

2005




800
zine ma

Osteguna / Larunbata **2,00 €**

Igandea **1,00 €**


OSTEGUNA • jueves



ELEPHANT

Cannesen 2003an urrezko palmondoa eta zuzendari hobere-naren sariak irabazi zituen film konprometitu honek. Bi ardatzetan oinarritzen da filmaren indarra: Ameriketako Estatu Batuetako gizarteari egiten dion kritika zentzuzkoan eta istorioa kontatzeko egiten duen muntaia berezian. Gus van Sant zuzendari ezagunak (Todo por un Sueño joan den uztaillean ikusi genuen Lezon) antzezle ezezagunekin egin du apustua eta zinez ongi atera zaio.

2003, EEBB 81 min. Gus van Sant.
John Robinson, Alex Frost, Eric Deulen, Nathan Tyson.



LUNES POR LA MAÑANA

Vincent nazkatua dago bidai luzeen ondoren fabrika lan egin beharraz. Handik bueltan, etxeko lanak eta familiak bere gustu-koena den pintatzeko zaletasuna lantzen ez diote utziko. Bere ingurune hurbileko bizilagun eta ezagunak ere nekatur dago. Dena utzi eta mundua bisitatu asmoz Veneziara alde egingo du... Han aurkituko ote du bila dabilen hori? Otar Iosseliani Donostiako zinemaldiak atzera begirakoa eskai-ni zion 2001ean eta pelikula honekin Berlinen 2002an bi sari jaso zituen, beraz badirudi zer eskainia baduela, ezta?


2002, Frantzia, Italia 120 min. Otar Iosseliani.
Jacques Bidou, Anne Kravz-Tarnavsky, Narda Blanchet, Radslav Kinski.



TAXI PARA TRES

2001. urtean Donostiako zinemaldian urrezko maskorra irabazi zuen Txileko pelikula honek. Ez genuen ondoren pelikula hau ikusteko aukera handirik izan. Donostiako zinemaldian saria irabazi eta gero, estreinatu ez edo oso denbora gutxian izan diren pelikulen zerrenda luzea da. Horietako bat da eskuartean dugun hau. Txileko auzo txiroenetan bizitzan aurrera egiteko batzuk hartzen dituzten lanak ditu oinarri pelikularen istorioak. Donostian zer saritzen duten eta Txilen ekoizten ari direnaren lagin bat!

2001, Txile 90 min.. Orlando Lübbert.
Alejandro Trejo, Fernando Gómez Rovira, Daniel Muñoz, Elena Milea.




SED DE MAL

Joan den urtean pelikula klasiko interesgarriak ikusteko aukera eskaini genuen. Aurtengoan gauza bera egiteko asmoari eutsi nahi diogu. Zine beltzaren erakusgai interesgarrienetakoa, due-la gutxi arte, zinemaren historiako plano-sekuentzia luzeena zuela esan ohi zen (gaur egun Sukorouven Russian Ark ek (2002) du ohore hori). Orson Wellesek ohitura zuen moduan zuzendari eta antzezle lanak batera egiten ditu. Mexikoko mugan kokatua polizia ustelak, narkotikoak, gangs-terrak eta nahi adina ekintza dira istorioaren eskaintza. Hori bai, gauzak behar bezala: txuri beltz zoragarriak!

1958, EEBB 95 min. Orson Welles.
Orson Welles, Charlton Heston, Janet Leigh.


LARUNBATA • sábado



LOST IN TRANSLATION

Soffia Coppolak bi pelikula egin ditu orain arte eta lehenengo-an harridura sorrazteko gaitasun izan bazuen, bigarren-go honetan arrakasta lortzeaz gain, pelikula osatu eta interesga-rri baten aurrean gaudela esaten digute jaso dituen sari uga-rik: 2003ko Veneziako eta Valladolideko zinemaldietan bina sari, 2004ko Oscarretan sari bat... Ezkondutako antzezle heldu bat eta bere bikotea ikusteko betarik ez duen neskatxa gaztea-ren arteko istorio nostalgikoa. Tokyon kokatua eta hain gutxi ezagutzen ditugun emakume zuzendariaren ukituarekin.


2003, EEBB, Japonia 102 min. Soffia Coppola.
Bill Murray, Scarlett Johansson, Akiko Takeshita.



GANGS OF NEW YORK

Scorsese handiaren beste pelikula handi bat. Ambientazioa, jantziak eta eszena batzuk ahaztezinak dira. DiCaprio Day-Lawisen arteko lehiak Heat pelikulako De Niro eta Pacinoren arteko hura gogorarazten du. Pelikulak New York hiriare-n bilakaera du argumentu nagusi. 1863 urtetik abiatuta banda ezberdinen arteko liskarrak izango dira kontakizunaren motorea. Dokumentu historiko moduan oso interesgarria eta pelikula gisa oso entretenigarria.

2002, EEBB, Alemania, EB, Italia 166 min. Martin Scorsese.
Daniel Day-Lewis, Leonardo DiCaprio, Cameron Diaz.




LAS INVASIONES BÁRBARAS

Joan den urteko modako pelikula izan zen Las invasions bár-baras hau. Arcanden izpiritu kritikoak oraingoan ere lekua hartzen du kontatzen digun istorioan zehar. Joandako 20 edo 30 urtetako gizarte errepasatzen dute heldu koadrila batek. El declive del imperio americano filmaren jarraipenaz hartu izan dute kritiko askok honako hau.

2004an atzerriko hizkuntzan egindako pelikularik hobere-naren Oscarra jaso zuen. Etxeko apalak sariz betearazi zion pelikula honek zuzendari kanadiar honi: Cannes, Valladolid, Cesar sariak...

2003, Frantzia 99 min. Denys Arcand.
Rémy Girard, S.Rousseau, D.Berryman, L.Portal, D. Michel.



AMEN

Costa-Gravas Grezian, Ken Loach Erresuma Batuek edo Gue-deguian Frantzia direna da. Hirurak ere, gaur egun Europako zinema zuzendari politikoki konprometituak direla esan dai-teke. Costa-Gravasek pelikula honetan konpromiso hori ia muturreraino eramaten du. Eliza katolikoaren ordezkaritza ofi-zialak eta naziek bigarren gerrate mundiala baino lehen, eta gerran bertan, izan zituzten harremanen berri ematen du. Ez, ez da roilo politiko bat, ez zara aspertuko, Gavras jaunak kontzientziak mugiarazten baditu ere, zinema egiten badakie-la erakutsi izan du!

2003, Frantzia, EB 132 min. Constantin Costa-Gravas.
Mathieu Kassovitz, Ulrich Tukur, Ulrich Mühe, Ion Caramitru.

Pirritx eta Porrotx

urtarrilak 9 igandea 18:30etan

BEKOERROTA KIROLDEGIAN

“patata, patata”




HIRUKIAK: EDURNE ZURI eta ZAZPI IPOTXAK / ALT XORRAREN UHARTEA

Marrazki bizidun berezia eta politak. Pertsonai kurioso eta mai-
tagarriak. Gaurkoan hirukiak bi istoriotan hartzen dute parte.
Lehenengoan hirukiak Edurnezuri eta zazpi ipotxei lagunduko
diete sorgin gaizto eta maltzurarengandik nola urrundu asma-
tu nahian.

Bigarrenko istorioan uharte batera joango dira eta han lurpera-
tua dagoen altxorra eskuratzen saiatuko dira. Oraingo honetan
pirata gaiztoak izango dira helburua lortzeko oztopo.

2003, Catalunya 60 min. Hainbat

Marrazki bizidunak.



SHIN CHAN: INBASIOA

Tronpa, tronpa... Gerra oihu ezagunetarikoa haurren artean (eta
jada baita helduen artean ere)! Nork egiten dituen? Nor izango
da bada? Shin Chan japoniako haur bihurrienak! Oraingo abent-
tura honetan martetarrak lurtar guztiak emakumezko bainado-
rez jantzarazi nahiko dituzte. Shinnosukek bere lagunekin aurre
egingo dio inbasioari lurtarren lasaitasunerako... Saihestu ezi-
nezkoa den galdera: zer izango da hobe Shin Chan salbatzaile
izatea edo martetarrak inbasioa burutzea? Ez galdu haurrak
abentura berri honekin gozatzeko aukera!

2003, Japonia 70 min. Usui Yoshito.

Marrazki bizidunak.



IPAR HAIZEAREN ERRONKA

Ez da Euskal Herria filma asko egin izan den lekua. Ezin esan dai-
teke gauza bera marrazki bizidunei buruz. Hemen ekoiztutako
marrazki bizidunetan oinarritutako pelikulak ugariak izan ez badi-
ra ere, batzuk badira. Horien artean *Ipar haizearen erronka*, duela 12
urte ekoiztutakoa egindakoen artean eredu izatera iritsi da.

Euskal marrazki bizidunen *klasiko* honetan haurrek hain gustukoak
dituzuen abenturak kontatzen dira. Fantasiatzko mundu batean
kokatzen dira istorio honetako pertsonaiak. Jada ohituak gauden
koloredun eta marrazki oso biziak dituen galdu ezinezko pelikula.

1992, EH 72 min. M. Ruiz de Austria & C. Varela.

Marrazki bizidunak.

URTARRILA - enero

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 6	22:00	ELEPHANT
LARUNBATA 8	22:00	LOST IN TRANSLATION
OSTEGUNA 13	22:00	LUNES POR LA MAÑANA
LARUNBATA 15	22:00	GANGS OF NEW YORK
IGANDEA 16	16:30	HIRUKIAK : EDURNE ZURI eta ZAZPI IPOTXAK / ALT- XORRAREN UHARTEA
OSTEGUNA 20	22:00	TAXI PARA TRES
LARUNBATA 22	22:00	LAS INVASIONES BÁRBARAS
IGANDEA 23	16:30	SHIN CHAN: INBASIOA
OSTEGUNA 27	22:00	SED DE MAL
LARUNBATA 29	22:00	AMEN
IGANDEA 30	16:30	IPAR HAIZEAREN ERRONKA

STANLEY KUBRICKen zikloa

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 4	22:00	LOLITA
ASTEARTEA 11	22:00	TELEFONO ROJO, VOLAMOS HACIA MOSCÚ
ASTEARTEA 18	22:00	2001. ODISEA DEL ESPACIO
ASTEARTEA 25	22:00	LA CHAQUETA METÁLICA

AUDITORIUMA

Gezala



KONTZERTUA

SEI URTE kontzertuan urtarrilak 28 ostirala 21:00etan GEZALA AUDITORIUMEAN

Sei urte, 1997. urtean sortu zen. 2001. urtean "Non" bigarren maketa grabatu zuten. Maketa hau aurkezteko, Durangaldeko hainbat musika taldekin, "200 baietz!" Bira antolatu zuten eta Euskal Herriko hainbat gaztetxetatik maketa aurkeztu ere.

Euskadi Gaztea-ko 13. maketa lehiaketatik hilabete batzuetara lehen diskoa ateratzeko aukera sortu zitzairen.

2003ko udan lehengo diskoa *Bapatean* zuzenean aurkeztu zuten. Kontzertuetan izandako sentsazio eta indarrak eraginda edo, gitarren presentzia nabarmentzen joan zen apurka-apurka. Horrela konturatu gabe, 2004ko udaberrirako disko berri bat grabatzera eramán ditu.

Beraz, urtebeteko tartea doi-doi eta gozatzeko beste hamaika kantu!

"Ekiozu" izendatu dute Berrizkoek lan berria. Zuzenekoak sendotzea zuten helburu, baina beraien identitatea, dotorezia eta nortasun musikalari jarraitzeak suposatzen zuen erronka galdu gabe. Auditoriumean entzun eta dastatzeko aukera paregabea izango dugu. Bestalde, taldea nolatan sendotu den ere ikusiko dugu.



PIRRITX eta PORROT

urtarrilak 9 igandea 18:30etan BEKOERROTA KIROLDEGIAN

Lezon, gure begiko ikusleei ezker, azken urtean jendetsuena bilakatu den emanaldia izango da aurten ere amaiera emateko Gabon zikloari.

Gure txikien zorionerako, beste behin ere inguruko herrietatik Lezo izan da paila hauen emanaldia berriaren aurkezpenera aukeratu duten herria.

Hauxe duzue aurten: "patata, patata"

STANLEY KUBRICK PERFEKZIOAREN BILATZAILEA

Stanley Kubrick zine zuzendari iparramerikarren biografiek diotenez ez omen zen oso ikasle ona izan. Unibertsitatean sartzeko aukerarik izan ez bazuen ere, irudien munduak erakarrita segituan hasi zen lanean argazkilari moduan *Look* aldizkariarentzako. Argazkietako irudi estatikoetatik zinemak eskaintzen duen dinamikotasunera pasatzea denbora kontua izango zen. 1951ean, 23 urterekin, bere lehen filma egin zuen: *Day of the Fight* izeneko laburmetraia. Ondoren etorri ziren, bere lehen pelikula luzeak izango zirenak *The Killing* (*Atraco perfecto*) 1956ean edo *Paths of Glory* (*Senderos de gloria*) 1957an..

Stanley Kubrick oso zuzendari berezia izan zen. 50 urtetan 13 luzemetrai eta 3 laburmetrai "baino" ez zituen egin. Hori esan bezain pronto gogoratu beharra dago ordea, zuzendari gutxi direla Kubrickek dituen maisulan kopurua izatera iritsi direnak: *The Killing* (*Atraco perfecto*), 2001: *A Space Odyssey* (2001: *odisea del espacio*), *A Clockwork Orange* (*La naranja mecánica*) edo *Path of Glory* (*Senderos de gloria*). Neur-gailu hoberena ez bada ere, aipatzekoa da bere pelikulekin guztira 10 Oscar jaso zituela eta, horietaz gain, beste 19 aldiz izendatu zutela sari horren lehiaketan.


Agintea eta boterearen erabilera modu ezberdinekin obsesionatu izan zuten zuzendari hau eta gai hori praktikoki bere lan guztietan ageri da zeharka edo modu zuzenean. Zehaztasuna, hoztasuna, perfekzioa, prezisioa, muturreraino eramandako arreta edota obsesioa bezalako hitzak Stanley Kubrick izenari itsatsirik joan diren adjektiboak dira. Kontuan izan behar da, bere pelikuletan parte hartu izan duten antzezleek plano bakoitza filmatzeko hartzen zituen lanak ekipoa 'erotzerainoko' moduak zirela aitortu izan dutela. Edonola, maisu, jenio, artista... nahi bezala izendatu dezakegu, baina oso gutxi izango dira zuzendari goraipatu honen pelikularen bat gustatu ez zaionik. Azkenik, esan beharra dago, ziklo hau antolatzeke garaian lau pelikula hauek aukuratu badira ere, egilearen beste edozein pelikula izan zitezkeela zerrenda hau osatu zezaketanak.



LOLITA

Vladimir Nabokov idazlearen nobelan oinarritutako filma (Garai hartakoa da, 1961ekoa, Jon Miranderen *Haur besoetako*). Eskandalua eragin zuen nobelak, eta ondorioz pelikulak ere, adinez heldua ez den neska gazte baten eta bere amaren etxean dagoen maizterren amodio harreman obsesiboa du oinarri. Gaur egun pedofilia kasuek eskuak burura eramanez badizikigute, zer ez ote zen gertatuko pelikula hau egin zen 1962. urtean. James Mason antzezleak zeregin apartekoa lortu zuen pelikula hone-tan. Gauza bera esan behar da Sue Lyon gazteak egindakoari buruz.


1962, EB 162 min. Stanley Kubrick.
James Mason, Shelley Winters, Sue Lyon, Gary Cockrell.



TELEFONO ROJO, VOLAMOS HACIA MOSCÚ

Pelikula hau egin zen garaian, 1964an, munduko nazioarteko harremanak gerra hotza deiturikoan oinarritzen ziren. Gerra nuklearen beldurra munduko bi potentzia nagusienak bakan egonazteraz bultzatu zituen. Testuinguru horretan, gai bera landu zuen Kubrickek komedia tonuan. Peter Sellers (aparteko antzezle, eta batez ere komedian-te, hori) da protagonista nagusia paper ezberdinak eginaz. Gerra nukleara abiaraziko du eta kontua abiarazitako hori nola geratu izango da.

1964, EB 93 min. Stanley Kubrick.
Peter Sellers, George C. Scott, Sterling Hayden, Keenan Wynn.



2001. ODISEA DEL ESPACIO

Intelegentzia artifiziala eta gizakiaren arteko loturak aztertzea omen zuen helburu Kubrickek Arthur C. Clarken nobelan oinarritutako istorio luze bezain zoragarri hau egiterako garaian. W.Allenek zioenaren arabera, film bat pantaila handian edo txikian ikustearen arteko diferentzia modu egokienean islatzen zuen filmea honako hau litzateke. Bere ustez, film hau pantaila txikian ikusteak zentzurik ez zuen. Amaitzeko, kuriositate moduan zinemak sekula egin duen elipsirik handiena egitea lortu omen zuen Kubrickek: gizakia tximino izatetik espazio ontzietan bizi bitartekoa, guztia plano aldaketa batean soilik!

1968, EB 139 min. Stanley Kubrick.
Keir Dullea, Gary Lockwood, William Sylvester, Daniel Richter.



LA CHAQUETA METÁLICA

Westernak jenero bat osatzera iritsi ziren garai batean. Vietnamgo gerran oinarritutako pelikulak, jeneroa osatzera iritsi ez badira ere, ugari filmatu dira. *Apocalypse Now* eta *Platoon* ekin batera Kubrickeen bertsio oso interesgarri hau izango dira gai hori landu duten pelikularik azpimarragarrienak. Istorioa hiru zatitan egituratu zuen: lehenengoan soldaduen instrukzioa du oinarri. Bigarrenengoak frontea du sostengu eta azkenekoan batailan ageri dira protagonistak. Vietnango gerrari buruzko nazioarteko kritikak oso gustura hartu zuen gerra epopeia.

1987, EEBB 115 min. Stanley Kubrick.
Matthew Modine, Adam Baldwin, Vincent D'Onofrio, R.Lee Ermey.

Gezala

AUDITORIUMA

K
U
L
T
U
R
A
K

